

## KORONABIRUSA ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN		NAFARROAN	
407	2.402	157	824 (+5)
positibo berri	hildako EAEn	positibo berri	hildako
30.860	135	38.317	50
positibo guztira*	UCIn EAEn	positibo guztira	UCIn Nafarroan

\*HERNANIN 1.057 (+13), ASTIGARRAGAN 237 (+1)

(Nafarroako Ogasun Saila)

URUMEA BAILARAKO EGUNKARIA



### Binakakoa martxan gaur, Galarretan

HERNANI  
ERREMONTEA

14



### Milaka langileren egoera gaiztatu du pandemiak

URUMEA  
LAN MUNDUA

10-11



Sariak jasota pozik, Kromiki Lehiaketako irabazleak

HERNANI  
DOBERA

8-9

## Hasi da bi asteko erronka, hizkuntza-ohiturak aldatzeko

Atzo abiatu zen Euskaraldia, Urumea bailarako 3.000 Ahobizi eta Belarriprest baino gehiagorekin. 15 egunez, euskerari bultzada emateko saiakeran arituko dira denak, bakoitza bere erronka eta helburu propioei helduta.

2-3



### Ikasgela Zerbitzua, martxan

Gaurtik aurrera, zabalik egongo da Gabriel Zelaiko eraikineko Ikasgela Zerbitzua.

HERNANI  
UDALA

6

### Landaren estreinakoa gaur, trikoloreek

HERNANI  
ERRUGBIA

13

Kutxabank  
**EUSKARALDIA**rekin

GEHIAGO,  
GEHIAGOREKIN,  
GEHIAGOTAN

2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra

kutxabank



# Bailarako 3.000 herritarrek baino gehiagok heldu diote atzotik, Euskaraldiaren erronkari

Sekulako gorakada izan du Ahobizi eta Belarriprest kopuruak Urumea bailaran, duela bi urteko Euskaraldiaren aldean: 2.000 pasatxo izan ziren orduan, erronka abiatzeko unean. 3.126 dira, atzo goizeko datuen arabera.

## URUMEA EUSKARALDIA

COVID-19aren pandemiak egoera aldrebestu eta Euskaraldiaren martxa oztopatu duen arren, sekulako gorakada izan du euskeraren erabilera areagotzeko ekimenak, Urumea bailaran. Atzo hasi zen Euskaraldia, eta bailarako 3.000 herritarrek baino gehiagok heldu diote erronkari, abenduaren 4ra arte. Zehazki, atzo goizeko datuen arabera, 3.126 ziren, izena emandakoak: Hernanin eta Ereñotzun 2.140, Astigarragan 707, Goizuetan 253, eta Aranon 26.

Aurreko edizioan baino 1.000 inguru gehiago dira horiek, gara berean: 2.108 lagun zeuden izena emanda orduan, Euskaraldia hasteko momentuan. Eta gorakada horrek balio gehiago hartu du, Euskal Herri mailan izan den bilakaera ikusita. Izan ere, duela bi urte 196.000 lagun zeuden izena emanda Euskaraldian, erronka hasi zenean; eta aurten, 147.000 inguru izan dira, eman dituzten datuen arabera.

## Izena emateko epea luzatuta, datorren asteartera bitarte

Izenemate epea ez dago itxita oraindik, dena den. Luzatu egin dute, datorren asteartera bitartean; eta beraz, azkeneko aukera dute, oraindik apuntatu ez diren Ahobizi eta Belarriprestek.

Horretarako, Ereñotzun mahaia jarriko dute berriro, datorren astelehenean, arratsaldeko 16:30ak aldera. Hernanin, berriz, gaur goizean jarriko dute postua, Plaza Berrin, izena emateko eta txapak jasotzeko. Eguerdiko 12:00etatik 14:00etara izango da, eta photocalla ere jarriko dute, gerturatzen direnekin argazkiak atera, eta Euskaraldiaren ha-

siera irudikatzen, horiekin. Eta datorren astean zehar ere, kalera aterako dute Euskaraldiko postua Hernanin, arratsaldetan, eguraldi ona eginez gero.

Bestela, Euskaraldiaren web orrian ([euskaraldia.eus](http://euskaraldia.eus)) eman daiteke izena.

## Partehartzaileen %63a, emakumezkoa

Herenegun zabaldu zituen behin behineko datuak Euskaraldiak, eta 147.000 horien ezaugarri batzuk ere eman zituen. Horrela, partehartzaileen %79a izango da Ahobizia, eta %21a ariko da Belarriprest rolean. Gainera, jakinarazi dute %63a dela emakumezkoa; eta adin guztietako partehartzaileak izango dira.

Partehartzaileen jatorria ere eman dute aditzera: gipuzkoarrak dira %44, bizkaitarrak %33, nafarrak %12, arabarrak %9, eta Ipar Euskal Herrikoak %2. Era berean, jakinarazi dute Euskal Herritik kanpo bizi diren ehunka lagunek eman dutela izena.

Eta izena eman duten guztien artean, %27ak aurrenekoz hartuko du parte Euskaraldian: ez zuten izena eman, 2018koan. «Azpimarratzekoa da, pandemiaren egoerak eragindako zailtasunak haundiak izan arren, berriro ere ariketa masiboa izango dela Euskaraldia», nabarmendu dute antolatzaileek.

## 25.000 Arigune baino gehiago, 6.800 entitatearen eskutik

Norbanakoez bakarrik ez, entitate askok ere hartuko dute parte Euskaraldiaren edizio honetan. 6.800 entitate izango dira guztira, eta haiek, 25.000 Arigune baino gehiago sortu dituzte: euskera erabiltzeko babestutako guneak, alegia. «Beraien ahale-



Bertso saio batekin egin zioten ongietorria Euskaraldiari Astigarragan, ostegunean, Oihana Bartra eta Sustrai Colinarekin.

gina ere azpimarratu behar da, egoera zaillean egon arren, Euskaraldian parte hartzeko ahalegina egin dutelako», diote.

Euskeraz lasai aritzeko guneak dira Ariguneak, bermatzen dutenak uneoro euskeraz hitz egiteko aukera, izan entitatearen barruan, edo entitateak herritarrekin duen harremanetan. Ahobizi edo Belarriprest modura arituko dira entitate horietako kideak, baina modu kolektiboan gauzatuko dute ariketa. Mota guztietako entitateek hartuko dute parte, Urumea bailaran bertan: gizarte eragileak, enpresak, kooperatibak, kultur eta kirol elkarteak...

## Mezu bat egunero, eta solasaldiak eta lan-saioak Euskaraldian zehar

Erronkari gogotsu eusteko eta gauzak errazteko, zenbait ekin-tza prestatu ditu Euskaraldiak, bi aste hauetarako. Horrela, batetik, mezu bat zabalduko du egunero, Euskaraldiaren eta herrietako batzordeen sare sozialetan. Horietan, emango dituzte gomendioak, datu interesgarriak eta aipuak. Bestetik, zenbait bideo edo spot labur ere zabal-

duko dituzte, aurreko edizioan parte hartu zuten kideen esperientziak jasoz, eta aurten parte hartzera animatuz. Ahobizi edo Belarriprest gisa, ariketa eroso egiteko gakoak ere emango dituzte haiek.

Eta azkenik, solasaldiak eta saioak antolatu ditu Euskaraldiak, online, bi aste hauetarako. Hiru izango dira solasaldiak, eta [eitb.eus](http://eitb.eus) eta [euskaraldia.eus](http://euskaraldia.eus) web orrietan ikusi ahal izango dira. Etzi izango da aurrenekoa, astelehenarekin, 19:00etan hasita: *Hizkuntza hautua sare sozialetan garaietan*. Gaizka Izagirre ariko da moderatzaile lanetan, eta Iruñe Astizek, Alex Padillak eta Aiora Mugikak hartuko dute parte. Azaroaren 25ean, berriz, *Musikariak euskaraz kantatzeko erabakiaz mintzo* izango da gaia, 19:00etan hori ere; eta Leire Palaciosen gidatuta, Rafa Ruedak, Alex Sarduik eta Maria Riverok hartuko dute parte. Eta abenduaren 1ean izango da azkenekoa, ordu berean: *Arlo sozio-ekonomikoaren hizkuntza(k)*. Maite Artola ariko da moderatzaile lanetan, eta parte hartuko dute Ander Aizpuruak, Mari Jose Aranguren eta Naiara Goiak.

Lan-saioak, berriz, bi izango dira, ariketako zailtasunak gainditzen laguntzeko, Euskaraldiaren YouTubeko kanalean: azaroaren 27an Gemma Sanginesekin, 19:00etan; eta abenduaren 2an Pello Jauregirekin, ordu berean.

## Euskaraldiari ekarpen 'espaziala' gaur, Alberto Azkarate astigartarrak

Eta zuzenean Euskaraldiarekin lotuta ez badago ere, ekimenari bere ekarpen berezia egingo dio gaur, Alberto Azkarate astigartarrak. Europako Agentzia Espazialak Sentinel 6 satelitea jaurtiko du gaur espaziora, arratsaldeko 18:17etan, orbitan jartzeko. Itsasoaren maila neurtuko du horrek, klima aldaketaren eragina ikusteko, eta arriskuan egon daitezkeen lekuak hobeto babesteko.

Eta satelitearen jaurtiketa, zuzenean emango du Azkaratek, euskeraz komentatuta, bere Twitcheko kanalean: [twitch.tv/espazioa](http://twitch.tv/espazioa). Ofizialak izango dira irudiak, Europako Agentzia Espazialarenak; baina narrazioa astigartarrak egingo du, espazioari euskal tonua jarritz. **K**

## Kronika

Larramendi 11, Hernani  
943 33 08 99  
688 660 714

Lege gordailua:  
SS-1469/2018  
ISSN: 2659-5036

Eposta:  
[kronika@kronika.eus](mailto:kronika@kronika.eus),  
[astigarraga@kronika.eus](mailto:astigarraga@kronika.eus),  
[urumea@kronika.eus](mailto:urumea@kronika.eus) eta  
[publi@kronika.eus](mailto:publi@kronika.eus).  
[www.kronika.eus](http://www.kronika.eus)

Lan-taldea:  
A. Arbelaitz, O. Egaña, I. Goñi, L. Goñi, A. Isasa, B. Los Arcos, J. Osa, M. Ramirez de Alda, I. Santa Kruz eta J. Zubitur.


### Argitaratzailea:



KRONIKAK ez du bere gain hartzen egunkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Larramendi 11, Hernani  
943 33 27 99  
Eposta: [dobera@dobera.eus](mailto:dobera@dobera.eus)  
[www.dobera.eus](http://www.dobera.eus)

### Laguntzaileak:



DOBERA BAZKIDEAK  
KRONIKALARIAK

### Diruz lagundutako argitalpena:



Gipuzkoako Foru Aldundia

TOKIKOM





## «Konfiantza kontua da»

GABI MORGA BELARRIPREST (ARANO)

«Donostiarra naiz, eta duela bi edo hiru urte iritsi nintzen Aranora. Belarriprest izango naiz aurten, pixkanaka-pixkanaka euskeraz hitz egitera heltzeko asmoz. AEK euskaltegian ikasi dut nik, eta nahi dudana da, gutxienez herrian bertan euskeraz aritzeko gai izan, herri-tarrekin euskeraz egitea. Oraingoz, ondo moldatu naiz bertakoekin euskeraz egiteko, baina gehienek ohitura daukate erderara pasatzeko. Ni ere, seguruago sentitzen naiz gaztelaniaz, baina pixkanaka ari naiz saiatzen euskeraz egiten. Ez da erraza, baina konfiantza kontua da. Gustatuko litzaidake etorkizunean egunerokoa euskeraz egitea Aranon. Herri-tarrekin praktikatzen dut, eta hori da bidea, ikasteko modurik onena». **K**



## «Euskeraz bizi nahi nuen»

TXARO PERALES AHOBIZI (HERNANI)

«Zazpi urteko bikiak dauzkat, eta eskolan hasi zirenean, konturatu nintzen ez nituela ulertzen, irakurtzen nizkien ipuinak. Horrela, nola hitz egingo nuen haiekin euskeraz, haunditzen zirenean? Euskeraz bizi nahi nuen, eta Udal Euskaltegian hasi nintzen. Pixkanaka hasi nintzen euskera ulertzen, barneratzen, eta neure sentitzen. Eta esperientzia honek emandako guztia izan dira onurak. Duela bi urte, Belarriprest izan nintzen, eta nire erronka izan zen, ezezagunekin euskeraz egitea aurreneko hitza. Lortu nuen, eta gaur arte mantendu dut. Ilusio handia egin dit aurten Ahobizi izateak, eta saiatuko naiz, ahal dudan guztietan euskeraz egiten». **K**



## «Lotsak utzi behar ditugu»

ROCIO MAYORAL BELARRIPREST (ASTIGARRAGA)

«Logroñokoa naiz, eta hona etorri nintzenean, duela 20 urte, pare bat urtez ikasi nuen euskera. Ulertu egiten dut, baina hitz egitea gehiago kostatzen zait. Baina dendan (Leizuri Izoziak) nagoenean, arreta euskeraz egiten dut, betidanik. Horretarako moldatzen naiz, ikasi ditut hitzak eta esaldiak, baina zenbakiakin nahastu egiten naiz! Euskeraz hasi nahiko nituzke solasaldi guztiak. Lotsa kentzen nijoa, eta nire egoeran dagoen jendea animatu nahi dut, lotsak utzi eta euskeraz hitz egitera. Jendeak lagundu egiten dizu. Nire senarraren amarekin, beti hasten naiz euskeraz, eta animatu egiten nau. Berari ikasi dizkiot esaera asko». **K**



## «Auzokoek laguntzen didate»

LEIRE RODRIGUEZ BELARRIPREST (EREÑOTZU)

«Donostiako Altza auzokoa naiz, eta garai hartan, oso erdalduna zen. Errenteriara mugitu nintzenean hasi nintzen euskaltegian. Orain ez daukat joateko astirik, baina Ereñotzun, saiatzen naiz bertakoekin euskeraz egiten. Beraiek euskeraz bizi dira, eta nik ere horri eutsi nahi diot, akatsak eginez bada ere. Gainera, beti daude prest laguntzeko; oso jatorrak dira. Urte asko daramazkit Ereñotzun, baina umea izan arte ez neukan hainbesteko harremana, bertakoekin. Gerora hasi naiz euskeraz gehiago egiten. Ereñotzutik kanpo gehiago kostatzen zait, ingurune erdaldunagoa daukadalako. Baina lanean ere, euskeraz egiten saiatzen naiz, hala nahi dutenekin. **K**



## «Ia dena egiten dugu euskeraz»

IRATI AROZENA ARIGUNEA (GOIZUETA)

«Arigune bezala eman dut izena, ileapaindegiarekin. Hemen ia dena egiten dugu euskeraz, betidanik; eta izena eman nuen, euskera gehiago bultzatzeko. Euskaraldiko banderola ere jarri dut ileapaindegian, jendea parte hartzera animatzeko. Nahiz eta herri mailan asko erabili, bultzada bat behar du euskerak. Batenbat baldin badago, euskeraz egiten ez duena, horretara animatu behar dugu. Ileapaindegian, gaztelaniaz egiten dutenekin, saiatuko naiz euskerara ekartzeko. Ez badute ulertzen, pasako gara erderara; baina behintzat, saiake-ra egingo dugu». **K**

# Gabonetako argiak ipini dituzte

HERNANI GABONAK

Azaroa bukatzearekin batera, gabonetarako argiak kalean zintzilik jarri dituzte aste honetan. Urtero lez, Udale langileek furgonetak eta argiak kokatzeko igogailuak hartu eta kaxkoa apaindu dute. Horren bueltan, iritzi kontrajarriak izan dituzte herritarrek. Batzuek diote pandemia garaia ez dela horrelako gastuak egiteko momenturik egokiena. Beste batzuek, berriz, garai ilun hau argitzeko beharrezkoak direla adierazi dute.

Berriak -Hernaniko Merkatarien eta Ostalarien Elkarteak- jakitera eman du «kritika batzuk» jaso dituztela gai horren gainean. Izan ere, beraiek jartzen dituzte gabonetako argiak. «Guk ordaintzen dugu alokairua, eta Udalak manten-



Udale langileak Kale Nagusian Gabonetako argiak jartzen.

du eta jartzea. Guk garbi eduki dugu argiak jarri behar genituela, beharbada orain delako gastu hori egiteko momentua». Bi arrazoi eman dituzte: «bategatik, argiak jartzen dituenak ere jan behar duelako, eta horren atzean familia hernaniarrak daudelako. Hernaniko enpresa bat da argiak jartzen dituenak, eta langileak ere herrikoak dira. Eta bestetik, alderdi emo-

zinala dago: jende asko dago, bereziki adinekoa, leihoak ireki eta argiak ikusten dituenen, pozik jarriko dena. Eta zentzu horretan, emozionalki, argiak jartzeko urtea da hau», azaldu dute.

Azkenik kontsumoa «oso baxua» dela adierazi du Berriak elkarteak. «Herritar batek, seguruenik, etxean argi gehiago kontsumitzen du».



JASOTA BEZALA

Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. | Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. | Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. | Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak. | Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

## Irisgarritasun gabeko autobusak

Testu honekin nire haserrea adierazi nahi dut Hernani-Donostia A-1 eta A-2 linean autobus bat martxan jarri delako. Izan ere, badu arrapala, baina ez du bermatzen erabiltzaileentzako eskuragarritasuna. Horregatik, mugikortasun urriko pertsonen igotzea eragozten dieten eskailerak eta kotxetxoak erabiltzai-

leen artean ezinegona sortzen ari dira. Izan ere, lehenengo geltokian igo behar da eta azkenekoan jaitsi. Horri gehitu behar zaio, autobusetako erabiltzaileen laguntzarekin egin behar izaten dugula lan hori, lanez gainezka dauden txoferrek ezin baitute lagundu. Deigarria da, halaber, kotxetxoak edo aulkiak

lotzeko uhalik ez izatea. Enpresa ausarta da autobus hori zirkulazioan jartzeagatik, eta horrek esan nahi du ez dela betetzen eremu horretako herritarrei zerbitzu publikoa emateko bermea.

Elisa Gavari Starkie

## Nola biziko dugu Bizilagunak 2020?

Nire izena Fatima Nciri da, jatorriz marokoarra. Urteak daromatzat Hernanin bizitzen, hain zuzen, 2008garren urtean etorri nintzen lagun baten bitartez adin txikikoen babes zentru batetan lana egitera. Ilusio handiz hasi nintzen lanean, betidanik gai sozialekin sentsibilizatua egon bait naiz. Hala ere, ezin dut ukatu hasiera gogorra egin zitzaidala, emakume arabiarra eta bakarrik egotea ez baita erreza, oztopo ezberdinak gainditu behar izan ditut.

Hernanin jendea ezagutzen nuelari esker, beste pertsona, talde sozialekin, elkarteekin... harremanetan hasi nintzen, Ahmer elkarte horietako bat izan zen. Hau niretzako oso garrantzitsua izan zen, iharduera ezberdinetan parte hartzen hasi baintzen, nire isolamendutik irteten eta nire bizitzako arlo ezberdinetan aurrerapausoak

ematen hasiz.

Iritsi nintzenetik eraikitako harreman guztiak, elkarteen bitartez sustatutako baloreak, elkartasuna, ezagutza... asko lagundu didate bizitzen ari garen pandemia garai honetan. Zoritxarrez, pandemia honek guztiei gogor jo gaitu, niri, nere familia urrun egotea gehitzen zait. Guzti honek, emozio korapilo bat sortzen du: beldurra, tristura, ezjakintasuna... Hala ere, emozio hauek eramangarriagoak dira urte hauetan harreman eta elkarteen bitartez sortutako laguntza sareari esker. WhatsApp eta deien bitartez bada ere, harremanetan jarraitzen dugulako eta tarteka talde txikietan elkartzen garelako bata bestearen berri edukitzeko eta ahal den neurrian elkarri laguntzeko.

Harreman mantentzen dutan pertsona asko, Bizilagunak ekimenean ezagutu ditut. Ur-

teetan zehar etxe ezberdinetan elkartu izan gara, kultura zein jatorri ezberdinetako pertsonak. Bertan, norberaren kultura gastronomikoa ezagutzeaz gain, bakoitzak bazkarirako sukaldatzen duen janari ezberdinen bitartez, bizitza esperientziak, sentimenduak, aurrera egiteko ilusioa eta gauza asko partekatzen ditugu.

Aurten, pandemia dela eta, ezingo gara etxeetan elkartu, ezta kultura ezberdinetako janaria dastatu, baino telematikoki elkartuko gara, ahal den neurrian elkartasuna, ilusioa eta elkar laguntza konpartitzen jarraitzeko eta noski garai hauetan hain garrantzitsua den itxaropena ez galtzeko, laister berriro ere fisikoki elkartu eta jaki ezberdinak dastatu ahal izango ditugula pentsatuz.

Fatima Nciri

## EROTIKAN PLAX!

## TESTIGANTZAK



## Elkarri eta aurrera begira jarraitzeko

Lekukotza: Asier 44 (eta Olatz 41)

Ibilbide luzeko bikoteetan, krisialdiak ohikoak dira. Harremanak urteak metatzen dituenen, baita kitatu gabeko fakturak eta itxi gabeko zauriak ere. Aukera paregabea da krisialdia aurrera jarraitzeko garbiketa emozionala egin eta proiektu berriein ilusionatzeko.

“Plax zerbitzura joan izan ez bagina, ez dakit bikote izaten jarraituko genukeen, baina badakit, ez ginatela orain bezain ondo egongo.

Duela hiru urte hasi zen dena, gure harremana kili-kolo zegoenean. Neskato txikiak, errutina, itxi gabeko zauri zaharrak... Ez genekien, geuden zultok nola atera.

Nire emazteak Plaxen iragarkia ikusi eta joateko kontentzitu ninduen. Oraindik ez diot behar adina eskertu. Ez da bide erraza izan, baina pozten naiz ibili izanaz.

Bileretan, denetarik izan dugu, eztabaidak, eragindako mina ezagutu dugu, bata bestearen lekuan jarri gara, negar egin dugu, barre egin dugu...

Plaxeko sexologoak, entzun gaitu, gidatu egin gaitu, eta garrantzitsua, tresnak eman dizkigu guk bidea egiteko. **Ez gara inoiz epaituak sentitu eta ez da irabazlerik edo galtzailerik izan, biok irabazi dugu.** Irakurketak aholkatuz, eguneroko tentsio-une eta egoerentarako trikimailu edo teknika

txikiak emanez, batzuetan entzun nahi ez genituen gauzak esanez, ondoezaren kausak aztertuz, **pazientzia, profesionaltasun eta hurbiltasun handiz** lortu du esaten ziguna onartzea, praktikan jartzea eta helburuak lortzea.

Beti irribarre batekin (gauza serio jartzen zenean izan ezik) eta begirada konplize baina profesional batekin, eroso eta ulerkor sentiarazi gaitu.

**Erromantizismoa eta sexualitatea (bikote batean hil ala biziko zerbait) ere landu ditugu,** ideiak, aholkuak eta proposamenak eginez. Sexua naturaltasunez tratatzen dut beti, baina txinparta mantentzeko behar den morboa galdu gabe.

Bizi izan dudana guztiagatik, gaizki edo erdi-ondo dagoen oro, animatu nahiko nuke, Plaxera joatea, edozein dela arrazoia, ez da damutuko. Hori bai, argi utzita Plax dela Everestera igotzen laguntzen dizun xerpa, baina **gailurrera iristeko pausoak norberak eman behar dituela**”.

### Astigarragan ere Plax! sexu aholkularitza zerbitzua

Plax! Astigarragako sexu eta bikote aholkularitza doakoa eta konfidentziala da. Zerbitzua aurrez aurre eskainiko da kultur etxe zaharrean. Telematikoki ere aukeratu. Hitzordua egiteko: **656 544 606** (deitu edo whatsapp bidali) edo [www.astigarraga.eus/sexu](http://www.astigarraga.eus/sexu).

**ASTIGARRAGA  
TRATU ONEN  
EROTISMOAREKIN!**

  
Astigarragako Udala

# INDARKERIA MATXISTAREN

AURREAN

EZ

ZAITEZ

IKUSLE

HUTS

BAT

IZAN

ERASO ASKO GURE BEGIEN AURREAN GERTATZEN DIRA.  
ZUK ERE BADUZU HAU ALDATZEKO ARDURA.



NOLA JOKATU JAKITEKO INFORMAZIOA:  
[berdintasuna.eus](http://berdintasuna.eus)

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA  
ORAIN  
Es futuro

# Hernaniko Udalak bat egin du Tratu On programarekin

Educo nazioarteko fundazioarekin elkarlanean, helburua da haurren eskubideen promozio, prebentzio eta babes politikak martxan jartzea.

## HERNANI UDALA

Atzo Haurren Nazioarteko Eguna izan zen, eta Hernanin haurren eskubideen alde egiten ari diren ekimenen berri eman zuten udal ordezkariak. Xabier Lertxundi alkateak jakinarazi zuenez, Udalak bat egin du Tratu On proiektuarekin. Educo nazioarteko fundazioak sustatzen du programa hau, eta horrekin lantzen ari direna da toki erakundeetatik haur eta nerabeentzako ingurune seguruagoa eta bidezkoagoa lortzeko politiken garapena. Ekimenaren lehenengo fase honetan, Hernaniko Institutuan eta Txirrita Eskolan



Xabier Lertxundi alkatea eta Oier Agirresarobe Hezkuntza zinegotzia, atzo.

ari dira diagonalistikoa egiten, eta planaren lanketak bizpahiru urte eramango ditu.

Tratu On-ek arreta berezia jartzen du haurren hiru eskubideren gainean eta, bereziki, eskubide horiek gauzatzeko tokiko erakundeetatik egin daitezkeen politiketan. «Zehazki, eskubide horien promozio, prebentzio eta babes politiketan», azaldu dute. Landuko diren 3 eskubideak hauek dira: Bizitzan zehar kalitatezko, transformatzailea eta

bidezkoa izango den hezkuntza baterako eskubidea; inguru seguru eta babesleetan bizitzeko eskubidea; eta, azkenik, haurtzaroaren eskubideak sustatzen dituen sistema publiko baten markoan, hiritartasun aktiboa gauzatzeko eskubidea.

Agirresaroberen esanetan, plan hori osatzeko Udalez gain, komunitatearen partehartzea ere funtsezkoa da. «Hala nola, ikastetxeak, haur txokoa, gaztelekua, edota herriko elkarteak». **K**

# Gabriel Zelaiako Ikasgela Zerbitzua martxan izango da gaurtik aurrera

Martxoaren 20an itxi egin behar izan zuten, baina gaurtik zabalik egongo da, eta baimen-txartela duten herritarrek erabili ahal izango dute.

## HERNANI UDALA

Joan zen martxoan ezarritako konfinamenduaz geroztik etenda egon da ikasgela zerbitzua Gabriel Zelaiako, erabilera anitzeko espazioak izanik, beste erabilera batzuk lehenetsi direlako. Hala ere, gaurtik aurrera berriro hasiko da martxan. Ikasgela Zerbitzua erabili ahal izateko protokoloa zehaztu da, baita edukiera mugatu ere. Horrekin

batera, lantaldean jarduteko gelan gehienez 3 pertsona egon daitezke. Bakarkako ikasgelan, berriz, mahai bakoitzeko bina pertsona egon daitezke; guztira 14. Zalantzarik izanez gero, araudi berria erabiltzaileen esku jarri da udal webgunean.

**Baimen-txartela, beharrezkoa** Ikasgela Zerbitzua erabili ahal izateko baimen-txartela eskuratu behar da, Udal Liburute-

gian eskatuta. Bestalde, 16 urtetik gorakoek erabil dezakete zerbitzua, eta ezinbestekoa da 5 euroko fidantza ordaintzea baimen-txartela eskuratzeko.

Bestalde, ohiko erabiltzaile diren herritarrek baimen-txartela eguneratu beharko dute, ikasgela hori erabili nahi badute. Horretarako, hauxe egin beharko dute: liburutegian txartela utzi, eta bertan eguneratuko dute. Halaber, zerbitzuaren erabiltzaile izateari utzi nahi dutenek, baimen-txartela liburutegian entregatu eta fidantza berreskuratuko dutela jakinarazi dute arduradunek. **K**

# Zortearren erruleta gaur, Udaleko arkupeetan

Gutxienez 60 euroko gastua egin duten herritarrek izango dute parte hartzeko aukera, goizeko 10:00etatik 13:00etara bitartean.

## HERNANI EKONOMIA

Joan den larunbatean ekin zioten zortearren erruletari, Udaleko arkupeetan. #IzanAktibista kanpaina berpizteko abian jarri duten dinamika da, eta azaroko hiru larunbatetan egongo da, herritarrei sariak banatzeko. Erruletaren helburua da merkataritza jarduera bultzatzea eta herritarren kontsumoa sustatzea, eta horretarako sortu dute zortearren erruletaren ekimena.

Goizeko 10:00etatik 13:00etara izango da parte hartzeko aukera, baina joan den asteburuan berehala agortu ziren sariak. Beraz,

azkar eta adi egotea gomendatu dute arduradunek. Izan ere, aurreko larunbatean bertaratu zen herritarren batek saririk gabe geratu behar izan zuen.

**Tirada egiteko, baldintza bat** Parte hartzeko baldintza bakarra dago: aste honetako ostegun, ostiral edo larunbatean, Hernaniko dendetan erosketak egitea, 60 euroko gastuarekin, gutxienez. Beraz, erruletan tirada egiteko beharrezkoa izango da alde aurretik erosketen tiketak erakustea. Aurrekoaren harira, tiket bat baino gehiago batu daitezke, aipatutako kopurura ailegatzeko.

Azken txanda datorren larunbatean izango da, azaroaren 28an. Antolatzaileek jakitera eman zuten, guztira 100 sari banatuko dituzte erruletan. Tartean daude diskoak eta bes-telako opari bereziak. **K**

# Bihar oroitu ditzute eraildakoak

## HERNANI ERAILKETAK

Bihar Atsegindegian gogoratuko dituzte oroitzapen ekitaldi batean, eguerdiko 12:00etan, duela 40 urte eraildako Felipe Sagarna Zapa, Miguel Mari Arbelaitz, Joaquín Altimasberes eta Luis Mari Elizondo hernaniarrak. Senideek antolatu dute biharko hitzordua, eta beraiekin bat egiteko eskatu diete herritarrei.

# Jardunaldi politiko bikoitza, GKSk

## HERNANI GAZTE KOORDINADORA SOZIALISTA

Etzi eman zieten hasiera Buruntzaldeako jardunaldi politikoei Gazte Koordinadora Sozialistako kideek. Atzo Jazarpen polizialaz hitzaldia izan zen eta gaur, berriz, bi egingo dituzte. Lehena goizean izango da, 11:30etan. Atsegindegian kontrol sozialaz eta askatasun politikoez hitz egingo dute. Bigarrena, aldiz, arratsaldean izango da. Oraingo honetan plazan izango da, arratsaldeko 18:30etan, *Burgesiaren zuzeneko diktadura gelditu!* lemapeko jardunaldian.

# Haur antzerkia izango da gaur Biterin

## HERNANI KULTURA

Gizon zoriontsuaren *alkandora* haur antzerkia izango da gaur 12:00etan Biterin. Interesa dutenek sarrerak kultur etxean bertan erosi ditzakete, 3 euroko prezioan.

**FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA**

**Asegururik ba al duzu? Deitu Orbegozora**

24 orduko tlfnoa.  
**943 33 10 20** [www.funerariaorbegozo.com](http://www.funerariaorbegozo.com)

- \* Zerbitzu partikularrak eta aseguru etxeekin
- \* Beilatokiak
- \* Errausketak
- \* Lekualdatzeak
- \* Eskelak, koroak...

Zentrala Latsunbe 7, Hernani

HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · URNIETA · GOIZUETA

## Hilak 30a, inkesta entregatzeko epemuga

Galtzaurreko bezeroi inkesta bat bidali diete elkartekoek, elkar-tearen gainean duten iritzia ezagutzeko.

ASTIGARRAGA GALTZAUR

Galtzaur, Astigarragako jubila-tuen eta Pentsiodunen Udal Zen-troa, Elkar-tearen gaineko haus-narketa-prozesuan murgilduta dago, eta asmoa da funtsezko bi puntu jorratzea: batetik, elkar-tearen egungo egoera aztertzea; eta bestetik, Galtzaurren etorki-zuna hobetzeko proposamenak egitea.

**Inkesta entregatzeko epea azaroaren 30era luzatu da**

COVID-19ak sortu duen egungo egoera dela eta, eta bazkideek gaur egun elkar-tea nola haute-maten duten jakiteko, inkesta bat bidali diete posta arruntez. Asmoa da ezagutzera «bezeroek elkar-tearen gainean duten iritzia». Herenegun jakinarazi zuten epea luzatu zela, eta, beraz,

bazkideek azaroaren 30era arte izango dute inkestak bete eta bidaltzeko aukera. «Azpimarratu behar da haien ekarpenak oso garrantzitsuak direla Galtzaurren oraindirako eta etorki-zunerako, eta asko eskertzen dugula egindako ahalegina», aipatu dute elkartekoek.

Dagoeneko Galtzaurrek bidali die inkesta bezeroei, edozein arrazoiengatik jaso ez dutenek edo betetzeko laguntza behar dutenek ondorengo telefono zenbakira deitu dezaketela gehitu dute: 625 023 696. Bertara deituta argituko dizkiete zalan-tza guztiak.

Aurten saio ugari antolatu ditu elkar-teak, Astigarragako Udalarekin elkarlanean. Martxoan, adibidez, Ehuntzen egitasmoan parte hartu zuen Galtzaurrek. Tailer horietan *Do it yourself* lorategiak egin zituzten, sexualitateaz aritu ziren eta sukaldaritza ikastaroa ere programatu zuten. Edonola ere, azken hori martxoaren 26an egitekoak ziren eta konfinamendua dela eta, bertan behera gelditu behar izan zuen. **K**

## Abenduaren 10a arte luzatuko dira meurri murriztaileak

Eusko Jaurlaritzak adierazi du pandemia gelditzeko orain arte ezarritako neurri murriztaileei eutsiko dietela, «eraginkorrak» izaten ari direlako.

URUMEA KORONABIRUSA

Herenegun jakinarazi zuen Eusko Jaurlaritzak orain arte ezarritako neurri murriztaileak beste 3 astez luzatuko direla. Gotzone Sagardui Osasun sailburuaren esanetan, pandemia geratzeko hartutako neurriak «eraginkorrak» izaten ari dira Euskal Autonomia Erkidegoan. Beraz, horiekin jarraitzea erabaki egokiena dela helarazi dute. Gaur sartuko da indarrean dekretu berria, eta pandemiaren egoeraren arabera gaurkotuko dute abenduaren 10eko data, Osasun sailburuaren esanetan.

Izan ere, egindako agerraldian, Sagarduik azpimarratu



Komertzioak 21:00ak arte egongo dira zabalik, eta ostalaritzak itxita jarraituko du.

zuen bide onetik goazela, baina asko dagoela egiteko oraindik: «ondo goaz, baina ez gaude ondo; kasu asko ditugu, positibotasunaren portzentajea altua da».

Hori horrela izanik, indarrean jarraituko du EAEn eta udalerrian pertsonak sartzeko

eta irteteko mugak, eta, hortaz, mugikortasunak mugatuta jarraituko du. Gainera, 22:00etako etxeratze-agindua egongo da, jarduera sozioekonomikoak 21:00etara mugatuta jarraituko dute eta ostalaritza-establi-menduak itxita egongo dira. **K**

## «Langile-taldea indartu behar da»

Galarretako LIDL dendan ere langile falta izan dela salatu dute: «lan karga handia dugu; nazkatuta eta haserre gaude».

URUMEA LAB

LAB sindikatuak adierazi du «ezinbestekoa» dela Gipuzkoako LIDLeko dendetako langile-taldea indartzea, «pandemiak eragindako egoeratik harago». Sindikatuak emandako datuen arabera, LIDLek 9 denda eta 220 langile inguru ditu Gipuzkoan; zehazki Eibarren, Arrasaten, Hernanin, Irunen, Donostia eta Azkoitian. Denda guzti horietako lan-taldearen egoera salatu du. Izan ere, haien esanetan, «martxotik jo eta su ari dira lanean langileak. Hasieran enpresak neurri batzuk hartu bazituen ere, hilabeteak aurrera joan ahala, ustezko normaltasunaren aitzakian enpresa erlaxatzen joan da, eta gaur egun, langileak bakarrik aurkitzen dira denda aurrera ateratzeko garaian».

Edonola ere, gaizkiegon hori pandemiaren aurretik ere baze-goela helarazi dute. «Hasieratik egindako eskaera da; ezinbestekoa da LIDLeko dendetako langile-taldea indartzea. Eta ez da COVID-19aren pandemiak zein ondoriozko segurtasun neurriak lan karga biderkatu dutelako bakarrik, lehenagotik ere ezagutzen genuen egunerokoa delako. Eta orain, ia 8 hilabete beranduago, oraindik ere pandemia garaian eta Gabonek dakarten salmenten igotzearekin, LIDLeko langileak nekatuta eta haserre daude».

Horregatik guztiagatik, LAB sindikatuak egoera honi aurre egiteko, hainbat eskaera egin ditu: Kontratazio gehiago egitea denda guztietan; nahi duten langileei lanaldiak handitzea; dendetako aforoak gehiago murgatzea; produktuen aniztasuna murgatzea; dendak arratsaldeko 20:00etarako, beranduenez, ixtea; eta, azkenik, produktibitatea presio mekanismo zein helburu bezala ez erabiltzea.

Amaitzeko, aipatu dute «honek ezin du horrela jarraitu. Langileen osasun fisiko zein psikologikoan eragin zuzena du». **K**

### Gabonetarako erosketak, alde zurretik hobeto



HERNANI BABESTUTAKO EDUKIA

Hilabete besterik ez da falta Gabonetarako, eta ziurrenik ez dugu izango familian elkar-terik, baina etxeko berotasunean ospatu ditzakegu. Horretarako, beharko ditugu otorduetarako janari-edariak, eta baita opariak ere.

Horiek, aurten bereziki, alde zurretik erostea da go-

mendioa. Batetik, ez dakigulako komertzioak zabalik egongo ote diren, 15 egun barru adibidez; eta bestetik, zabalik egonda ere, pilaketak saihestu behar ditugulako, denak azkeneko egunetan joanda. Horregatik, dagoeneko hasi gaitezke erosten, edo enkar-guak egiten. Berriak elkar-teko komertzioak ondo hornituta daude, une honetan!



**BERRIAK**  
Hernani

**BIZI, EROSI  
ETA MAITE  
HERNANI**



Oparietarako ere jo dezakegu herriko establezimenduetara. Internetera jotzen dugu askotan, zer oparitu ez dakigunean, esperientziak eta otorduak erostera; baina herrian bertan badauzkagu, horrelakoak eskaintzen dituzten establezimendu eta zerbitzuak. Bono ederrak pres-tatuko dizkigute, nahi dugunari oparitzeko!

Askok zabalitzen ari den mezua da, herrian bertan erosteara, eta hornitzaile handien kontrakoa; eta akaso, horiek entzuten nekatuta egongo dira batzuk. Baina hori da errealitatea, aurten inoiz baino gehiago: beharrak dauzkaten familia asko daude, eta elkar laguntzeko modurik onena da, bertan bertakoa erostea. Horrela, lagunduko diozu harakinari, baserritarri... Kate luzea dago eros-keta bakoitzaren atzean, eta jende askori laguntzen diogu.



Valentina Linares, Ana Almandozek egindako sariarekin.

## «Nire amonarekin gogoratu nintzen, lehiaketarako komikia egiterakoan»

Adineko emakume batek egunerokoan izan ditzakeen arazoak irudikatu ditu Valentina Linaresek, eta horiei konponbidea bilatu die.

**VALENTINA LINARES** 8 URTE

Haurren kategorian irabazi du Doberaren Kromiki Lehiaketa, Valentina Linaresek. 8 urterekin, Aratz ikastetxean ari da ikasten, eta bertan egin du lehiaketarako komikia. Ondo landuta aurkeztu zuen: «ez nuen egun bakarrean egin, bi edo hiru egunetan aritu nintzen komikiarekin», azaldu du berak.

Gizarteko arazo bat ekarri du paperera Valentinak, bere ko-

mikiarekin: adineko emakume bat islatu du, etxean bere kaxa moldatzeko arazoak dituena. Binetetako batean erori egin da, eta bestean plater bat erori zaio. Adinekoek egunerokoan izan ditzaketen arazo horiei, «konponbidea bilatzen» saiatu da Valentina, komikian: koltxoneta bat jarri dio, erortzen denean minik ez hartzeko, eta gauzak erortzen zaizkionean ez hausteko.

«Nire amonarekin gogoratu nintzen, komikia egiterakoan;

nahiz eta bera ondo moldatzen den oraindik, bere kaxa», kontatu du berak.

Saririk lortuko zuenik ez zuen espero Valentina Linaresek, eta «oso pozik» agertu zen Dobera Euskara Elkartearen bulegora. Ana Almandoz kromikilariak egin zion saria, hiru dimentsiotan irudikatutako herri bat; eta asko gustatu zaio haurren lehiaketako irabazleari.

Baina beste saririk ere jaso zuen: Gaueko komiki dendaren bono bat, gustukoan dituen hiru komikiak aukeratu eta opari eramateko. Horiekin, beharbada, komikigintzan trebatzen jarraituko du Valentinak. **K**



Nahia Goikoetxea, Alai Zubimendik egindako ilustrazioarekin.

## «Garai hauetan, egunerokoan ikusten dugun egoera bat da, islatu dudana»

Egungo egoeraren ispilu da, Nahia Goikoetxearen komiki irabazlea: pertsona batek doministiku egin, eta inguruko guztiak aldendu zaizkio.

**NAHIA GOIKOETXEA** 11 URTE

COVID-19ak eragin dituen egoera deigarri horietako bat paperera ekarrita, Nahia Goikoetxeak irabazi du Doberaren Kromiki Lehiaketa, gaztetxoaren kategorian. «Kalean askotan gertatzen den egoera bat» islatu zuen, bere komikian: kalean pertsona batek doministiku egin, eta inguruko guztiak egin dute ihes, COVID-19a izango duelakoan. «Komikia egin nuen egunean bertan, Kale Nagusian bizitu nuen antzeko egoera bat. Gizon bat ez tulka hasi zen, eta ingurukoek gaizki begi-

ratu zioten. Interesgarria iruditu zitzaidan, egoera hori islatzea», azaldu du Nahia.

Ikastolan, Elizatxon, jaso zuen komikia egiteko fitxa, eta bi arratsaldetan osatu zuen, pausoz pauso: «aurrena, gutxi gorabehera irudikatu nuen, zer nahi nuen marraztu. Ondoren, zirriborro bat egin nuen; eta azkenik, fitxan marraztu nuen behin betiko komikia», dio.

Ez zuen uste, irabaziko zuenik: «nire gelan bertan, badaude oso ondo marrazten duten ikas-kideak. Baina beharbada, istorioarekin hobeto asmatu dut».

Izan ere, horretan ondo trebatuta dago bera: «txikitatik idazten ditut liburuak eta ipuinak, asko gustatzen zait. Marraztu gutxiago egiten dut, baina tarteka, irudikatzen ditut nik idatzitako ipuinetako pertsonaiak, imajinatzen ditudan moduan».

Afizioa ofizio bihurtu nahi luke Nahia, etorkizunean: «idazlea izan nahi dut. Beti hasten naiz liburu luzeak idazten, eta ez ditut inoiz bukatzen. Hortik urte batzuetara topatzen ditut kajoian, hasita eta bukatu gabe», kontatu du.

Lehiaketarako komikia bai, ederki bukatuta utzi zuen, eta «ilusio haundia» egin dio irabazteak, baita Alai Zubimendik egin dion marrazkiak ere: «logelan jarriko dut enmarkatuta!». **K**



Leire Etxeberria, Ainara Azpiazu 'Axi'k egindako ilustrazioarekin.

## «Sorginaren kapela maskarilla gisa jartzea izan zen aurreneko ideia»

Datorren urteko San Joanak nolakoak izango diren irudikatu du Leire Etxeberriak, bere komikian: «buruan oso garbi neukan ideia».

**LEIRE ETXEBERRIA** 40 URTE

San Joan jaien bilakaera irudikatu du Leire Etxeberriak, Doberaren Kromiki Lehiaketarako lanean; eta bera izan da irabazlea, helduen kategorian. Eta horretarako, sorginaren kapelarekin jokatu du: «kapela maskarilla gisa jartzea izan zen, burura etorri zitzaidan aurreneko ideia, lagun batek jarritako irudi batek: amona bat, urtebetetzeetako

kono horietako bat aurpegian jarrita. Eta ideia horretatik abiatuta hasi nintzen lantzen».

Konfinatuta egon behar izan zuen epe batean ekin zion komikia egiteari: «argazkiak egitea gustatzen zait gehiago, eta Udal Egutegirako lehiaketan hartu izan dut parte. Marraztea ere bai, baina orokorrean, ez zehazki komikiak. Aurreneko aldiz hartu dut parte, komiki lehiaketa batean. Baina konfinatuta

nengoenez, gauetan hasi nintzen komikia egiten. Buruan oso garbi neukan ideia, eta horregatik egin nuen errazago. Bestela, oso zaila da. Gustuko ditut komikiak, baina ez naiz trebea».

Lanak izan zituen, esaterako, kapela maskarilla modura jartzeko, alderantziz: «izugarri kosta zitzaidan, eta azkenean, Axpiren bideo batekin ikasi nuen nola egin». Aspaldi, berekin egin zuen ikastaro bat, eta horregatik egin dio ilusio berezia, Axpik berak egindako ilustrazioa jasotzeak, sari gisa: «oso polita da, sekulako artista da Axi», nabarmendu du. **K**





Valentina Linaresen komikia  
Haurren Kromiki Lehiaketaren irabazlea



Nahia Goikoetxearen komikia  
Gaztekoen Kromiki Lehiaketaren irabazlea



Leire Etxeberriaren komikia  
Helduen Kromiki Lehiaketaren irabazlea

**ARISTREGI**  
SUKALDEAK • PROIEKTUAK  
www.aristregi.com

Erreforma integralak  
Sukaldeak  
Bainugelak  
Armairuak  
Altzari lagungarriak  
Mahaia eta aulkiak

Gabriel Celaya  
Plaza, 1 / Hernani  
943 55 06 88 - 696 859 967  
Zabaleta 51 / Donostia

**Adarraga**  
HERNANI (Gipuzkoa)

**ADARRAGA**  
Konfitegia  
Pasteldegia

Urbieta Etorbidea 7  
☎ 943 55 09 10

**KUTIXI**

15 urte bete ditugun honetan,  
gure eskerrik beroena bezeroei,  
garai zail hauetan izandako fideltasun eta jarreragatik.  
Mila esker bihotzez!



Bere jarduera eten behar izan zuten Hernaniko eta Astigarragako enpresa gehienek, pandemiaren aurreneko asteetan.

# Milaka langileren egoera gaiztotu da COVID-19aren pandemiaren ondorioz

Lan munduan koronabirusak eragin duen kaltea oso handia izaten ari da, eta datuak ageriko sentsazio hori indartzera datoz. Langabezia igo egin da eta ERTE egoeran murgildutako langileen kopurua deigarria da. 7.985 dira, denera, Betterri-Buruntza eskualdean.

## AIURRI ALDIZKARIAK landutako erreportajea

Lan munduan koronabirusak eragin duen kaltea oso handia izaten ari da, eta datuak ageriko sentsazio hori indartzera datoz. Langabeziak gora egin du eta ERTEan murgildutako langileen kopurua oso deigarria da. Ia zortzi mila lagun daude edo egon dira aldi baterako erregulazio espidentean.

Buruntzaldea eskualdeak ga-bezia batzuk baditu, eta nagusiki bi dira: lehena, enpresen tamaina oso txikia dela. Bataz beste, 10 langile azpikoak dira enpresa gehienak. Eta, bigarrena, etorkizunari aurrea hartzeko duten zailtasuna. Digitalizaziorik ez da apenas eman. Eta bi aldagai horiez gain, eskualdeko enpresetan ez dago berezko produktu propiorik, eta kanpoko enpresa handien baitan daude. Horrek dependentzia egoera handia eragiten die.

Udaberrian pandemia hasi zenetik, eskualdeko ekonomiak jaso duen kolpea handia izan da. Eta horrek eragin zuzena izan du langilegoarengan.

### Langabezia

Azken bost urteetako daturik txarrena eskaintzen du, eta iazko datuekin alderatuta, 809 afiliatu gutxiago daude Gizarte Segurantzaren alta emanda. Urte batetik bestera langabezia 2,23 puntu igo da. Une honetan, eskualdean langabezia %10,2an

aurkitzen da. Datuak aletzen hasita, zerbitzuetan 525 langabetu gehiago dago, eta industrian 104 gehiago.

### ERTEak

Aldi baterako erregulazio espidentean murgildu diren langileen kopurua ikusita, oso ondo-

rio kezkarriak atera daitezke. Kopurua oso handia da, ia 8.000 lagun egon dira egoera horretan. Enpresa txikiak izanik, menpeko industria izanik eta zerbitzuetan ostalaritzak eta merkataritzak pisu handia izanik, hobeto ulertzen da datu handi hori. Izan ere, pandemia ondoren saihestu duten sektoreak energiarekin, informazioaren eta komunikazioaren teknologiek, telekomunikazioekin edo informatikarekin loturikoak dira. Eta horien pisua gure eskualdeko ekonomian oso oso apala

da. Ekonomia gurean enpresa txikiak eta gertuko zerbitzua eskaintzen duten ekimenak dira. Pandemiaren gehien sufritzen duten sektoreak, alegia.

ERTEen bilakaera hori oso tentuz jarraitu beharrekoa da, behin behineko neurriak direlako. Estatu mailan hartutako neurria da, gizartearen babesteko hartu dena, eta pandemia egoera luzatzen eta zailtzen bada ikusi behar da estatuak zenbaterainoko aukera izango duen ERTE kopuru handi horri eusteko. Txarrean jarrita, ekonomia

## Langabezia

	Iraila'19	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila
<b>Langabetuak guztira</b>	2.902	2.941	2.924	3.254	3.591	3.669	3.790	3.790	3.870	<b>3.711</b>
<b>Langabezia %</b>	7,97	8,08	8,04	8,94	9,87	10,08	10,42	10,42	10,64	<b>10,2</b>

## Langabezia, sektoreka

	2019	2020										Aldea
	Iraila	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila		
<b>Nekazaritza</b>	59	72	69	69	74	70	79	82	77	69	<b>(+)10</b>	
<b>Industria</b>	411	395	399	441	480	492	514	528	526	515	<b>(+)104</b>	
<b>Eraikuntza</b>	175	181	187	192	214	212	223	237	239	229	<b>(+)54</b>	
<b>Zerbitzuak</b>	1.979	2.030	2.020	2.296	2.551	2.603	2.625	2.588	2.653	2.504	<b>(+)525</b>	





# Erabaki eta Margotu



Zer da hau, pizza ala tarta zati bat? Pizza baldin bada, marraztu iezazkiozu zure gogoko osagaiak. Tarta zati bat baldin bada, apaindu munduko gustagarriena izan dadin.

# Zu bai Hamalau!



Ez dakigu zer prestatu duen Maripurtzilek, eta zer dakarren estalki horren azpian. Nolanahi dela ere, bi irudien artean bada aldea. Zehazki esanda, hamalau diferentzia daude, ikusten al dituzu?




# Itzala

Zein da Pelloziriren itzal zuzena?



Osa itzazu lauki zuriak, arrautza frijituaren gaineko domino zati honek zentzua izan dezan.

# DOMINOAN



QRak irakurtzeko aplikazio batekin irakurri

SOLUZIOAK: Sartu [www.plazanbazan.eus](http://www.plazanbazan.eus) web atarian eta denbora-pasa hauen soluzioekin batera beste hainbat jolas aurkituko dituzu.

EGILEA: Garbine Ubeda (Aurrri)  
TOKIKOMeko beste hedabideekin elkarlanean argitaratutako atala.

## Gaurkoan bai, estreinakoa jokatu du Hernanik Landaren

Eibarren kontra jokatu du, bere bigarren partidua, 16:00etan hasita, publikorik gabe. Internet bidez ikusi ahal izango da.

### HERNANI ERRUGBIA

Joan den astean jokatu behar zuten Hernanik Landaren, denboraldi honetan aurreneko aldiz, baina partidua atzeratu egin zen beste behin; oraingoan, Ferrolek zenbait jokalarik zituelako taldean, COVID-19arekin.

Hori horrela, gaurkoan bai, estreinako partidua jokatu dute trikoloreek, etxean. Eibar izango dute aurrean, arratsaldeko 16:00etan hasita. Ikuslerik ez da izango, dena den, atek itxita jokatu behar dutelako. Zaleek, internet bidez izango dute partidua ikusteko aukera, [ferugby.es](http://ferugby.es) web orriaren bitartez. Hernanik ere jarri du partidua ikusteko esteka zuzena, bere webgunean: [hernanirugby.eus](http://hernanirugby.eus).



Santboianaren kontra jokatu zuen Hernanik azkeneko Landaren, otsailean.

Ohorezko B Mailako bigarren partidua izango dute trikoloreek, gainerako taldeek baino beranduago hasi baitzuten liga: Ohorezko Mailan aritzeko kanporaketa jokatu zuten, aurreneko jardunaldiaren asteburuan. Ferrolen kontrakoa zeukaten orduan, oraindik jokatzetik lortu ez dutena. La Unicaren kontrakoa ere atzeratu zen hurrengo asteburuan, COVID-19 kasuak tarteko; baina hori bai, jokatu zuten astebete beranduago: 7-50 nagusitu zen Hernani, Iruñean.

Horixe dute erreferentzia bakarra hernaniarrek, eta beste garaipen bat bilatuko dute eibartarren kontra. Orain arte jokatuak biak galdu ditu Eibarrek, Bera Beraren kontra etxean (28-51), eta Ferrolen zelaian (42-8), hain justu.

Bestalde, jarri diote hasiera data, Emakumezkoen Euskal Ligari ere: urtarrilaren 3an ekingo diote. Aste honetan hasi da entrenatzen Hernani, 6 jokalariko taldeetan banatuta, txapelketaren hasierari begira. **K**

## Gasteizen jokatu dute txuri-berdeek bihar, Aurrera de Vitoriaren kontra

Euskal Ligako bigarren partidua izango du Hernanik, 12:00etan Olanabe zelaian, aurreko bi asteburuetan atsedentatu ondoren.

### HERNANI FUTBOLA

Bihar eguerdian jokatu du Hernanik, Euskal Ligako bigarren partidua; eta etxetik kanpo ariko da berriro. Gasteizen izango da, 12:00etan hasita Olanabe zelaian, eta Aurrera de Vitoria B taldearen kontra jokatu dute txuri-berdeek.

Atsedentatu hartzea tokatu zaie hernaniarrei, aurreko bi jardunaldietan. Izan ere, aurtengo denboraldi arraroan, astebururo bi taldek hartuko dute atsedena, zortzi taldeko multzoan; eta bi atsedentatu jardunaldiak segidan egokitu zaizkie txuri-berdeei, ia martxan jartzeko astirik gabe.



Ainhoa Lizaso txuri-berdea, Zubipen, aurreko denboraldiko partidua batean.

Orain arteko partidua bakarra, Lezaman jokatu zuten, Athletic C taldearen kontra, eta 10-1 galdu zuten orduan. Erreferentzia errealagoa izango da biharkoa, kontrario parekatuagoa izango baitute Aurrera talde arabarra.

Orain arte, hiru partidua jokatu dituzte gasteiztarrek: bat irabazi, eta beste biak galdu dituzte. Hiru punturekin bueltatu nahi dute hernaniarrek, aurreneko partidua ahaztu eta konfiantza hartzen hasteko. **K**

## Euskal Ligakoa bihar Berriozarren, Hernanik

Navarvoleyren kontra jokatu du, goizeko 11:30etan hasita, Nafarroako Gobernuak lehiaketako partidua baimendu ondoren.

### HERNANI BOLEIBOLA

Gorabehera dezente ari da eragiten COVID-19a, boleiboleko Euskal Ligan ere; eta asteburu hau ez da salbuespena izango, Hernaniren kasuan. Navarvoleyren kontra jokatu du azkenean, bihar goizeko 11:30etan hasita, Berriozarreko kiroldegian.

Partidu gogorra izango dute hernaniarrek, iazko txapelketa baita Navarvoley, eta talde indartsua baitauka. «Baina darimakigun desorekarekin, edozer gerta daiteke».

Horixe zen hasieratik aurrei-

kusita zegoen partidua, baina orain arte Nafarroan sartzerik ez zutela eta, partidua atzeratzekoak ziren. Horren ordez, asteburu honetan Bera Bera Bultz taldearen kontra jokatzeko zen Hernani, lehenagotik atzeratuta daukaten partidua, donostiarrek ere Nafarroan jokatu behar dutelako asteburu honetan. Kontua da, bihartik aurrera lehiaketako partidua jokatzeko baimenduko duela Nafarroako Gobernuak; eta beraz, bere horretan mantendu dute jardunaldia, azkenean.

Abendurako dago aurreikusita etenaldi bat Euskal Ligan, eta hori aprobetxatu beharko dute, atzeratuta dauden gainerako partidua berreskuratzeko, talde guztiek. Hala adostu dute Hernanik eta Bera Bera Bultz taldeak ere: abenduan izango da beraien artekoa. **K**

## Abenduaren 8an jokatu du Olaizolak, Binakakoaren finala

Epaileak erabaki du, jokatu egin behar dela semifinaletako ligaxkaren azkeneko partidua, finala baino lau egun lehenago.

### GOIZUETA ESKU PILOTA

Dagoeneko badaki Aimar Olaizola goizuetarrak, noiz jokatu duen Binakako Txapelketa Nagusiaren finala: abenduaren 8an izanen da, asteartearekin, baina jaiegunez. Oraindik ez dakiena da, noren kontra ariko diren, bera eta Mikel Urrutikoe txea. Izan ere, epaileak erabaki du jokatu egin behar dela semifinaletako ligaxkaren azkeneko partidua: Ezkurdia eta Martija,

Agirre eta Albisuren kontra.

Finala baino lau egun lehenago jokatu dute hori, abenduaren 4an, ostiralarekin; eta partidua horretako bikote irabazlea izango da, hain justu, bigarren finalista.

Bitartean, partidua jokatzeko jarraituko du Olaizolak; eta gaurkoak, bereziki, balioko dio finalerako prestaketa gisa. Izan ere, Urrutikoe txearekin berarekin ariko da, Bilbon, arratsaldeko 17:45etan hasita: Irribarria eta Martija izanen dituzte aurrez aurre. Publikorik gabe jokatu da, eta ETB1 telebista kateak eskainiko du, zuzenean.

Atzo gauean, Iker Salaberriak izan zuen, Buruz Buruko Txapelketaren semifinala, Axier Arteagaren kontra. **K**

OPARITU ILUNABARRIK GOXOENA

## SunsetBastian

[www.sunsetbastian.eus](http://www.sunsetbastian.eus)
[reservas@sunsetbastian.eus](mailto:reservas@sunsetbastian.eus)
[@ssunsetbastian](https://www.instagram.com/ssunsetbastian)

# Gaur bueltatuko da erremontea Galarretara, Binakako Txapelketaren 50garren edizioarekin

Egoera berezian ospatuko ditu urrezko ezteiak, Binakakoak. Publikorik gabe hasiko da txapelketa, baina zuzenean ikusi ahal izango da, ETB1en eta interneten.

**HERNANI ERREMONTEA**

Urriaren bukaeratik egon da jaialdirik gabe, Galarreta frontoia; baina bueltan izango da erremontea gaur, denboraldiko zita garrantzitsuenetako batekin: Binakako Txapelketa nagusia hasiko da, bere 50garren edizioan. Egoera berezian ospatuko ditu urrezko ezteiak, bost bikoteren arteko lehiarekin. Tartean izango da Endika Barrenetxea hernaniarra, Beñat Segurola aizarnazabaldarrarekin batera.

Beste lau bikoteak, honakoak dira: Javier Urriza eta Jagoba Labaka, Imanol Ansa eta Joxin Aizpuru, Aritz Juanenea eta Iban Larrañaga.

Orona-Ideoren erakinen inguruetan aurkeztu zuten txapelketa, asteazkenean; Orona Fundazioa baita Binakakoaren babesle nagusia.

## Hamar partidu, ligaxkan, aurreneko biak gaur

Gaur bertan hasiko da txapelketaren aurreneko fasea, ligaxka; eta hamar partidu jokatu dira guztira: larunbatero bi, abenduaren 19ra arte. Horrela, bikote guztiak ariko dira, guztien kontra: lau partidu jokatu ditu bikote bakoitzak, eta atsedean hartuko du larunbat batean.

Gaurkoan, Ansa II eta Aizpuru III geratuko dira jokatu gabe, eta honakoak izango dira jaialdiko bi partiduak, 15:30etan hasita Galarretan: Urriza eta Labaka, Juanenea eta Larrañaga-



Bost bikoteak eta Oriamendiko eta Orona Fundazioko ordezkariak, asteazkenean aurkezpenean, Orona-Ideoren inguruko belardietan. Argazkia: Maialen Andres

garen kontra; eta Segurola eta Barrenetxea IV, Goikoetxea V eta Endikaren kontra. ETB1 telebista kateak eskainiko du, zuzenean.

Partidu bakoitzeko irabazleak, 4 puntu lortuko ditu; eta galtzaileen kasuan, egindako tantoen arabera: 36-39 tanto birtartean eginda, 2 puntu; 32-35 artean, puntu bat; 26-31 puntu artean, punturik ez; eta 25 tanto baino gutxiago lortuz gero, puntu bat kenduko diete.

Horrela, ligaxka bukatuta, puntu gutxien dituen bikotea geratuko da txapelketatik kanpo, eta beste lauek egingo dute aurrera, semifinaletara. Bi bikoteraren artean berdinketa izango balitz, bien arteko partidua irabazlea hartuko da kontutan; eta hiru bikoteraren artean emango balitz berdinketa, partidu guztien tanteoari erreparatuko diote, postuak erabakitzeko.

## Semifinalak abenduaren 26an, eta finala urtarrilaren 2an

Partidu bakarrera jokatu dituzte semifinalak, lau bikoteek: ligaxkako aurrenekoa, laugarrenaren kontra ariko da; eta bigarrenaren, hirugarrenaren kontra.

Abenduaren 26an izango dira bi semifinalak, eta bi bikote irabazleak sailkatuko dira final haundira. Urtarrilaren 2an jokatuko da finala.

**COVID-19ra egokitutako txapelketa, eta atzerapenik ez** COVID-19ak eragin zuzena izango du Binakako Txapelketan ere, eta horretara egokitu behar izan dute. Hasteko, ez da publikorik izango, aurreneko partiduetan behintzat; eta frontoia itxita dela jokatu dute gaurko jaialdia. Eta bestetik, txapelketaren araudia ere egokitu behar izan dute, COVID-19arekin lotutako bajak izan daitezkeela eta.

Horrela, txapelketan zehar ez dute partidurik atzeratuko, jakinarazi dutenez. COVID-19arekin lotutako bajaren bat izango balitz, lesio baten gisan hartuko dute. Kasu horietan, erremontista batek jokatzetik ez badu, honakoa izango da ordezkapen sistema: publikorik gabe jokatzen bada partidua, Oriamendik erabakiko du zein izango den ordezkaria; eta publikoarekin jokatuz gero, maila bereko beste erremontistarik ez badago, par-

tidua galdutzat emango diote bikote horri, 40-0 emaitzarekin.

Gainera, erremontista batek beste bat ordezkatuko balu hiru partidutan edo gehiagotan, bera pasako da titularra izatera.

Era berean, argitu dute partiduren batean lesio bat izango balitz, eta erremontistak ezingo balu jarraitu jokoan, bi aukera dituela bikote horrek: partidua galdutzat eman, beste bikoteak 4 puntuak jasota eta beraiek ordura arte lortutako tantoen arabera; edo lesionatu ez den erremontistak jokatzetik jarraitzea, berak bakarrik, beste bien kontra. Bigarren kasu horretan, azkeneko emaitzaren arabera izango da puntu banaketa, beste partiduetan bezala.

Erremontista batek ezin badu semifinala jokatu, ordezkaria bilatuko dio enpresak; eta posible ez bada, ligaxkako bosgarren bikote sailkatua pasako da semifinala jokatzen. Hori bera finalaren atarian gertatuz gero, eta ordezkari erremontistarik ez balego, bikote horren kontrako semifinalean aritu zen beste bikotea pasako da finalera.

Ligaxkan bezala, semifina-

letan eta finalean ere, bakarrik jokatzetik jarraitzea erabaki dezake erremontista batek, bikoteak min hartuz gero.

## Jaialdi guztiak ikusgai, ETB1en eta Oriamendiren YouTubean

Publikorik gabe abiatuko da jaialdia, eta horrela izango da denbora batez, gutxienez: «badi-rudi, abenduaren erdialdera arte behintzat, horrela izango dela. Jaurlaritzaren arauen zain egon beharko dugu, egoeraren garapena ikusteko. Murrizketak aldatu arte, publikorik gabe jokatu dira jaialdiak», azaldu dute Galarretako arduradunek.

Edozein kasutan, larunbatero ikusi ahal izango dituzte jaialdiak zaleek, etxetik. Izan ere, ETB1ek zuzenean emango ditu gehienak: «txapelketako bigarren eta hirugarren jardunaldiak ez ditu eskainiko, baina laugarrenetik aurrera, ziurrenik partidu guztiak ikusi ahal izango dira». Eta gainerakoak, internet bidez eskainiko ditu Oriamendik, zuzenean, YouTubeko bere kanalean. Oriamendiren webgunean eta Facebooken ere jarriko dituzte horiek. **K**

## 50. BINAKAKO ERREMONTE TXAPELKETA NAGUSIA 2020

Larunbatean, 15:30etatik aurrera ETB1-en ZUZENEAN  
(Ate itxiz jokatu da)

URRIZA  
LABAKA

1 partida  
vs.

JUANENEA  
LARRAÑAGA


SEGUROLA  
BARRENETXEA IV

2 partida  
vs.

ETXARRI  
ENDIKA

# 7 ezberdintasunak

# Sudokuak



2	4		3					
			2	5	4	3	8	
		5	1	6		4	7	
				4		5		9
5		9	6	2				
4	8	3			5		1	
9	7		5				6	
3		6			7	8		4
1	5						2	


		5	1	3	
	1				2
					1
4					3
1					4
			6		

# Ariketa matematikoa

# Letra zopa

□	+	□	/	□	=	5
-		x	-			
□	x	□	-	2	=	4
+		/	x			
□	+	□	/	□	=	1
=		=		=		
5		2		9		

O	I	N	T	Z	A	L	J	O
S	B	R	I	S	N	I	A	L
E	A	Z	T	A	U	Z	K	A
H	G	L	O	Z	T	U	A	T
A	O	Z	I	N	O	R	E	A
P	I	R	A	M	I	D	E	B
E	R	L	M	U	R	E	O	R
G	A	Z	T	A	O	T	K	O
B	R	A	S	O	R	N	A	G



# Galderak

1. Sakeleko liburua deritzan formato txikiko liburua aski berria dugu. Izan ere, Penguin argitaletxe ingelesa izan zen lehena mota horretako liburuak plazaratzen. Noiz?

- A) 1921ean
- B) 1935ean
- C) 1946an

2. Normalean zer notarekin doitzen dituzte beren tresnak orkestako musikariek?

- A) Do notarekin
- B) La notarekin
- C) Edozeinekin

3. Gizakiok geure gorputzetik begien bistan daukaguna larrua da. Zure ustez, zenbat pisatzen du giza larruak batez beste?

- A) 2 - 3 kg
- B) 4 - 5 kg
- C) 6 - 7 kg

1. B) 2. B) 3. B)  
SOLUZIOA

<p><b>EGURALDIA</b> <b>GAUR</b> Egunaren hasieran lanbroa eta lainoa izango da hainbat lekutan, baina goizean bertan desegin eta eguzkitsu geratuko da denean. Ekialdeko haizea ibiliko da eta giroa, hotza izango da. <b>Min.3° / Max.15°</b></p>	<p><b>BIHAR</b> Hego-haizea ibiliko da eta baliteke apur bat epeltzera egitea. Egunsentia hotza izango da berriz ere, eta zeruan, lehen orduetako lainoa desegin ostean, ez da lainorik espero. <b>Min.5° / Max.17°</b></p>
<p><b>TELEFONO ZENBAKIAK</b></p> <p><b>TAXIAK</b> 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) <b>UDALZAINGOA</b> 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) <b>DYA</b> 943 464622 <b>AUTOBUSAK</b> <b>Garayar:</b> 943 556658 <b>Areizaga:</b> 943 452708 <b>Korroa Goizueta-Hernani:</b> 948 514037 <b>JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:</b> 943 331103 <b>ANBULATORIOA</b> 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta)</p>	
<p><b>FARMAZIAK</b></p> <p><b>Egunez: Tena</b> Nagusia, 16 (Astigarraga) <b>943 543718</b> <b>Gauetz: Urrutia</b> Etxeberri, 1 (Hernani) <b>943 557738</b></p> <p><b>Goizueta:</b> Nagusia 64 948 514353</p>	

**OSTALARIEN TXOKOA**

**Errioguardan eramateko menua.** GAUR: Barazki pastela + Esparrago berde eta langostinoen rebueltoa + Esne frijitua. **10,5 €.**

**Egoki taberna.** Behin behineko orduetegi berria. 7:30-16 eta 18:30-21. Menua astebukaera eta gauetan. Aukera zabala. **Deitu: 666 608 293**

**IRAGARKI MERKEAK**

**Garraiolaria** mudantza eta Garbigunera edozein traste eramateko eskaintzen da. **Deitu: 667 721 443 (Xabino)**

**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**



## Ikasgelatik basora, Eskola Agenda 2030 berriarekin

Lehorreko ekosistemetako bizitza landuko dute aurten, Astigarragako eta Hernaniko ikastetxeek, orain arte Eskola Agenda 21 zenaren barruan.

### URUMEA HEZKUNTZA

Ezaguna izan dugu azkeneko urte hauetan Eskola Agenda 21, ikastetxeetan lantzen dutena. Garapen iraunkorraren bidean, gai jakin bat lantzen aritu dira ikasturte bakoitzean: egoera aztertu, konponbideak proposatu, instituzioei helarazi...

Ikasturte honetan, izen berria hartu du egitasmoak, eta Eskola Agenda 2030 izango da, aurrerantzean. Helburua berbera izango da: garapen iraunkorrari buruzko sentsibilizazioa sustatzea. Eta oinarri izango ditu, Nazio Batuen Erakundeak 2015ean onartu zituen 17 Garapen Iraunkorrerako Helburuak, munduan pobrezia desagerrarazi, planeta babestu eta pertsona guztiei oporotasuna bermatzeko. 2015eko irailaren 25ean onartu zituzten helburu horiek, NBE osatzen duten 193 herrialdek. Eta aurrerantzean, horietan oinarrituko da eskoletako lanketa.

### Aurtengo lanketa, basoetan

Astigarraga eta Hernaniko ikastetxeen kasuan, 15garren helburua da aurten landuko dutena: lehorreko ekosistemetako bizitza. Oso helburua zabala da, alderdi asko hartzen dituen: lehorreko bizitza babestea, lehengoratzeta eta modu jasangarrian erabili dadila sustatzea; basoak modu jasangarrian kudeatzea; basamortutzearen aurka borrokatzea; lurren degradazioa gelditzea eta lehengoratzeta; eta biodibertsitatearen galera gelditzea.

Horien artean, basoen inguruan ariko dira Hernaniko eta Astigarragako ikasleak. Astigarragako Herri Eskolan, Haur Hezkuntzako 68 ikasleek eta Lehen Hezkuntzako 356 ikasleek har-

tuko dute parte, eta Izadi 21eko kideen laguntzaz landuko dute gaia. Hernanin, berriz, Udalak bultzatu eta Artelatzen garatuta, 2.500 ikasle inguruk hartuko du parte, Haur Hezkuntzatik hasi, eta Batxilergoko zein Gizarte Berrikuntzako ikasleetara.

«Ikasturtean zehar, hausnartzeko aukera paregabea daukagu. Burutuko diren ekintzen berri izango duzue. Dagoeneko martxan gaude, ikastetxeetako partaide guztiak, ikasle, irakasle zein guraso, aldaketaz informatuz eta motibazio fasean sartuta. Hemendik aurrera, ikastetxearen eta herriaren diagnostikoa egokituko da, betiere aurtengo helburua kontuan izanik», azaldu dute. Horretarako, hainbat galdera planteatu dituzte, ikastetxeko eta herriko argazkia egiteko: «Zer da baso bat? Zerk osatzen du basoa? Landaketa eta basoa, gauza bera al dira? Nolakoa da gure ikastetxearen ingurua? Eta herria? Zenbat berdegune eta baso daude herri eremuan? Zein kontserbazio mailetan? Eta bere kudeaketa?».

Galdera horiei tiraka landuko dute ikasleek, aurtengo gaia: «naturaz gozatzeko ingurune aparta dira basoak; orain, inoiz baino gehiago. Eta zuek ere animatu nahi zaituztegu, jasangarritasunaren trenera igotzera, inor atzean utzi gabe!», nabarmendu dute.

### Hondakinen Prebentzioaren Astea, gaurtik

Ingurumenarekin eta jasangarritasunarekin lotuta, beste zita bat ere badaukate ikasleek, egun hauetan. Izan ere, Hondakinen Prebentzioaren Astea hasiko da gaur, eta datorren astean zehar, horri buruz ariko dira, esaterako, Astigarragako Herri Eskolan:

hitzaldiak emango dituzte hondakin gutxiago sortzeari buruz, gelaz gela, Udaleko ingurumen saileko eta hondakinen arloko arduradunek. Lanketa egingo dute hamaiketako biltzeko aluminio-paperarekin; eta opari bana egingo diete ikasleei: eztiarekin egindako poltsa. **K**



Ikasle talde bat, Agenda 21eko proiektu batekin. Argazkia: Hernaniko Udala

Altzari bakoitzaren atzean mila istorio daude. Ez utzi botata.

# Eman ezaiozu amaiera polit bat

UTZI EZAZU GARBIGUNE BATEAN EDO DOAKO ZERBITZU BAT ERABIL EZAZU

**948 510 444**

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua

residuos de navarra nafarroako hondakinak

Endialdea ankomunitatea